

BERRI OROKORRAK

2022ko abenduaren 9an 14. zenbakia

IKASTOLEN TXOKOA

- **Seaskako egutegia:** Urtero bezala SEASKA ikastolen federazioak bere egutegiak argitaratu ditu, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko ikastolak laguntzeko. **Prezioa 4 eurokoa da.**



Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Abenduaren 14an izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Neguko oporrak

Abenduak 22, osteguna, eguerdiko **12:30ean** HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek **neguko oporrak** hasiko dituzte eta urtarrilaren 8ra arte iraungo dute.



Eskia denontzat

Egun bateko eski irteera urtarrilaren 21ean egitea aurrirakusten bazen ere, antolatzen duen enpresak **urtarrilaren 28ra aldatu** dela jakinarazi digu. Barkatu eragozpenak.



Gurasoentzat euskara-tailerrak

UEMAK **bi tailer** eskaintzen ditu gurasoentzat: bat euskara ikasteko EUSKARA EZ DAKITENENTZAKO TAILERRA eta bestea euskara jakin arren, gaztelaniaz hitz egiteko joera duten haientzat MOTIBAZIO TAILERRA.



MOTIBAZIO-TAILERRA:

- Hartzaileak: erdararako joera duten herritarrak.
- Helburua: hizkuntza praktikez hausnartzea, eta gaztelaniarako joera duten herritarrak euskaraz egitearen balioaz ohartaraztea.
- Iraupena: 2 ordu.

Tailer honek herritarra bidaia batean murgiltzera gonbidatzen du, bere joerak azter ditzan eta euskaraz ez egiteko arrazoiak identifika ditzan. Helburua izango da euskaraz ez egiteko arrazoi horiek, pixkanaka bada ere, euskaraz egiteko arrazoi bihurtzea.

EUSKARA EZ DAKITENENTZAKO TAILERRA: euskara ez dakiten herritarrentzako kontzientziazio-tailerra.

- Hartzaileak: euskaraz ez dakiten herritarrak.
- Helburua: euskaraz ez dakiten herritarrak ohartzea euskararen balioaz eta beraiek hizkuntzaren garapenean izan dezaketen funtzioaz.
- Iraupena: 90 minutu.

Tailer hau oso interesgarria da udalerrri euskaldunetan bizi diren guraso erdaldunentzat. Parte-hartzaileek sentitu behar dute, oraingoz, euskaraz ez jakin arren, badirela euskararen alde egin ditzaketen eguneroko ekintzatxoak, jarrera dela gakoa.

Interesa izanez gero, animatu eta **jarri ikastolarekin harremanetan** zuen seme-alaben tutoreen bitartez ala idazkaritzara deituz edo e-posta baliatuz.

Taldeak osatuko balira, bilera batean adostuko lirateke tailerrak aurrera eramateko egunak eta orduak.

HAUR HEZKUNTZA

Paperezko poltsa

Gogorazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa bana ekarri behar dutela.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 1eko familiei zuzendutako oharra

Abenduak erreziboarekin batera **optometristak** 1. mailako ikasleei egindako frogak direla eta, **14 euro** kobratuko zaizkizuela gogorarazten dizuegu.



Zorriak

LH 1eko eta LH6. Mailako ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU **DENOK** ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



LH 6ko familientzat oharra

Gaur, abenduak 9, LH 6ko ikasleei **Zuhatzako irteeraren 1. zatia** kobratuko zaie. **22,30 euro** izango dira.



Arropa galdua

Ageri aldeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago eta abenduak 22an bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango da.



Txistorra ogitartekoak

Aurten berriz ere, DBHko ikasleak prestatuko dizkigute azken eguneko txistorra ogitartekoak. Lortzen duten dirua ikasbidaiarako erabiliko dute.

Ogitarteko bakoitza **2 euro** da eta dirua abenduak 12 edo 13an ekarri behar da ikastolara.



Udal-liburutegiko oharrak

❖ Haur eta gaztetxoentzako irakurketa-solasaldia

"Sutegi Udal Liburutegian, LH 4 eta LH5eko ikasleentzat **IRAKURKETA-SOLASALDIA**, Yolanda Arrietaren gidaritzapean. **Mintzagai izango dugun liburua: Juan Kruz Igerabideren EUSKAL HERRIETAKO IPUIN GAIZTOAK** (atxikita doa liburuaren azala); **liburuak jada eskuragarri dituzue Liburutegian**. Plaza mugatuak direnez, **izena eman behar da Liburutegian** bertan.



Informazio gehiago, edo zalantzaren bat argitu nahi duenak, jo dezala Liburutegira, eta bertan emango dizkiogu beharrezko azalpenak"

Sutegi Udal-Liburutegian haur eta gaztetxoentzako irakurketa-solasaldiak prestatu ditugu. Bi saio izango dira, biak ere, Yolanda Arrietak gidatuko dituenak.

Saioetan parte hartzeko, aldeztu aurretik, Yolanda Arrietak eta liburuzainok hautatu dugun liburua irakurtzea eskatzen da; **liburuak jada eskuragarri daude Liburutegian**. **Leku mugatuak direnez, izena eman behar da Liburutegian** bertan.

Informazio gehiago, edo zalantzaren bat argitu nahi duenak, jo dezala Liburutegira, eta bertan emango zaizkio beharrezko azalpenak.

Hauk saioak:

- **LH 4-5: abenduaren 20an, asteartea, 18:00etan.** Mintzagai izango dugun **liburua: Juan Kruz Igerabideren EUSKAL HERRIETAKO IPUIN GAIZTOAK**. Hemen [liburuaren azala](#)
- **LH 5-6: abenduaren 23an, ostirala, 11:00etan.** Mintzagai izango dugun **liburua: Yolanda Arrietaren NITAZ AHAZTU DIRA**. [Hemen](#) informazio osoa.

❖ Eskulan-tailerra

Abenduaren 16an, ostirala, arratsaldeko **18:00etan** udal liburutegian **8 eta 12 urte bitarteko** haur eta gazteei zuzenduta, **eskulan tailerra antolatuta da Zorione Mendezekin**. **Plazak mugatuak** dira, beraz, aldeztu aurretik izena eman behar da liburutegian bertan. [Hemen informazioa](#)

DBH

Ebaluazio-txostenak

Gaur igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora. Ondoren, tutoreak kontaktuan jarriko dira guraso-bilerak zehazteko.



DBH 4ko ikasleen irteera eta kobrantza

Asteazkenean 4. mailakoak **Durangoko Azoka** bisitatu genuen. Autobusaren kostua **9,37€** da eta **gaur** kontu korrante bidez **kobratuko da**.



Material-kobrantza

Abenduaren 16an, hileko errezioboarekin batera, DBHko ikasleei **2022/23** ikasturteko **eskola-materiala** kobratuko zaie.

Erreziboa zenbatekoa izango den jakin dezazuen, seme-alaben bitartez esku-orri bat jasoko duzue.

Familiaren batek **bi epetan ordaindu** nahiko balu, mesedez, jakinarazi dezala idazkaritzan **abenduaren 13a baino lehen**.



DBH 1eko ikasleen irteera

Abenduaren 15ean Iruñeako Planetariumean Biologia /Geologiako gaiak landuko ditugu eta, ondoren, Iruñea herriko **Alde Zaharra** ezagutuko dugu. Egun osoko irteera izango da. Autobusa **11€** izango da.

Autobuserako **musukoa** beharrezkoa da.



DBH 2ko ikasleen irteera

Abenduaren 16an Tabakalerara joango dira **"Zinemaraaa" tailerrean parte hartzera**. Bertan zinegile garaikideen film labur sorta bat proiektatuko da: Arnasa, Erro bi, Heltzear eta Irrits.

Trenez joango gara, beraz, gogoratu **MUGI txartela eta musukoa** ekartzeaz.



Eskulan-tailerra Sutegin

Abenduaren 16an, ostirala, arratsaldeko **18:00etan** udal liburutegian **8 eta 12 urte bitarteko** haur eta gazteei zuzenduta, **eskulan tailerra antolatu da Zorione Mendezekin**.

Plazak mugatuak dira, beraz, alde zuretik izena eman behar da liburutegian bertan. [Hemen informazioa](#)

